

Europar Eremurako egokitzapena ezaugarri duen ikasturteari hasiera eman dio MUK Arrasaten izandako ekitaldi ofizial baten bidez

2008/10/10

Mondragon Unibertsitateak hasiera eman zion atzo, ostegunez, 2008/09 ikasturteari, Arrasateko Amaia Antzokian izandako ofizial baten bidez. Zalantzarik gabe, Goi Irakaskuntzako Europar Eremurako egokitzapena izango du ezaugarri nagusi ikasturte berriak.

Hasiera-ekitaldiak honako hauek izan ditu parte-hartzaile: Juan Jose Ibarretxe lehendakaria; Mondragon Unibertsitateko lehendakari eta Mondragon Korporazioaren ordezkaria Javier Sotil; Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburu Tontxu Campos eta losu Zabala Mondragon Unibertsitateko errektorea. Era berean, Markel Olano Gipuzkoako diputatu nagusia, Juan Ignacio Pérez Euskal Herriko Unibertsitateko errektorea eta Jaime Oraá Deustuko Unibertsitateko errektorea ere izan dira ekitaldian.

Javier Sotil Mondragon Unibertsitateko lehendakariak 2007/2008 ikasturteko Memoria aurkeztuz ekin dio hasiera-ekitaldiari. Ondoren, David Sánchez Unibertsitateko Enpresa Zientzien Fakultateko irakasleak web 2.0ri edo web sozialari buruzko hitzaldia eskaini du, "Enpresa 2.0: atomo eta bitetatik haratago" izenburuarekin.

Mondragon Unibertsitatea

Mondragon Unibertsitatea 1997. urtean jaio zen unibertsitate gisa, baina erakundea osatzen duten hiru fakultateek urte asko lehenagotik ziharduten irakaskuntzan, bakoitzak bere aldetik. Unibertsitatea eratu zenetik hona iragandako hamabi urteetan gauzak egiteko berezko era finkatu du zentroak. Bere irakaskuntza eredu propioari eta bere bereizgarriari esker, Mondragon Unibertsitatea erabat sendotutako erakundea da gaur egun. Honako hauek dira haren ezaugarriak: lotura estua enprekin, ikasleen enplegarritasun handia eta kalitateko prestakuntza, ikasleei, ezagutza zientifiko-teknikoez gain, gaitasunak eta balioak ere eskaintzen dizkiena.

Baina Mondragon Unibertsitatea, ezer bada, erakunde berritzailea da. Horren erakusgarria hau da: Eskaintza akademikoa Goi Irakaskuntzako Europar Eremura egokitu duen lehenengo euskal unibertsitatea da. Hala, gaur hasi den ikasturte akademikoan, Europara egokitutako sei titulazio eskainiko ditu. Horrek agerian uzten du Mondragon Unibertsitatearen izaera berritzaile eta aitzindaria. Izan ere, erakundeak zazpi urte daramatza bere irakaskuntza eredu propioa lantzen: Mendeberrri proiektua. Eredu hori zuzen-zuzenean egokitzen zaie Europar Eremuaren eskakizunei eta haren helburua bikaintasunezko irakaskuntza integrala da (eduki akademikoak ez ezik, ezaugarri pertsonalak ere aintzat hartzen dituena). Zentroak egindako apusturik garrantzitsuenetakoa da, zalantzarik gabe. Haren bidez, enpresa eta erakundeetan ageri diren premia eta aldaketei erantzun egokia eman nahi die. Unibertsitateko arduradun nagusien iritzian, premia eta aldaketa horiek hezkuntzaren kontzeptua sustraitik aldatzea eskatzen dute. Bada, aldaketa hori eginda, goi-irakaskuntzaren europar erronkari aurrea hartu zion Mondragon Unibertsitateak.

Hori dela eta, Unibertsitateko ikasleek aukera ezin hobe izango dute ikasturte honetan europar eremuan txertatu eta bikaintasunean trebatzeko. Edo bestela esanda, prestakuntzaren europar trenera igotzeko, prestakuntzaren baterako eremu horretara egokituko den lehenengo euskal belaunaldia izango baita. Izan ere, haien tituluak Europako eskakizunetara egokituta atera ahal izango duten lehenengo ikasleak izango dira Euskal Herrian.

Europar eremura egokitutako sei titulazio eskainiko ditu Mondragon Unibertsitateak ikasturte honetan, ingeniartzan eta enpresa-zientzietan. Honako hauek dira:



- Mekanika Ingeniaritzako gradua
- Industria Elektronikako Ingeniaritzako gradua
- Industria Antolakuntzako Ingeniaritzako gradua
- Informatika Ingeniaritzako gradua.
- Industria Diseinuko eta Produktu Garapeneko Ingeniaritzako gradua
- Enpresa Administrazio eta Zuzendaritzako gradua

Mondragon Unibertsitatearen jarduerak hiru ezagutza arlo garatzen ditu: arlo zientifiko-teknikoa (Goi Eskola Politeknikoaren bidez) enpresa arloa (Enpresa Zientzien Fakultatearen bidez) eta arlo humanistikoa (Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatearen bidez). Unibertsitatearen eskaintza akademikoak honako titulazio hauek hartzen ditu barne: lehen eta bigarren zikloko 24 titulazio, ingeniartzaren, enpresaren eta hezkuntzaren alorrei lotuta; gradu ondoko 20 titulu eta doktoletzako 5 titulu. Iazko ikasturtean zehar, guztira 3.702 ikaslek jardun zuten Unibertsitatean. Haietatik 3.248 graduoko tituluetan matriculatu ziren eta 454 gradu ondoko eta hirugarren zikloko tituluetan.

Mondragon Unibertsitateko lehendakari Javier Sotilek, bere hitzaldian, arreta berezia eman dio Goi Irakaskuntzako Europar Eremuaren eta Unibertsitateko hezkuntza-berringeniaritza ereduaren arteko lotura estuari. Orobat, Unibertsitateko I+G jarduera ere hizpide izan du Sotilek. Haren hitzetan, jarduera horrek ikerkuntzaren erabilgarritasuna du oinarri eta enpresek eskatzen duten berrikuntzari erantzuna ematera bideratuta dago. Unibertsitateko lehendakariak azpimarratu duenez, erakundearen hiru jarduerak (irakaskuntza, ikerkuntza eta teknologiaren transferentzia) bateratzea irakaskuntzaren kalitatea handitzeko eta bere konpromiso soziala betetzeko modurik onena da.

Ildo horretan, 2007-2008 ikasturtean Unibertsitateak bere 10 ikerkuntza-ildoak garatzen jarraitu du. Horretarako, irakasleek batez beste aduraldiaren % 34 eskaintzen diote I+G+B jarduerari.

Azkenik Unibertsitateak ekintzailetzaren alde egindako apustua nabarmendu du Sotilek, formula horri esker ikasleen eta irakasleen artean sustatutako enpresa-proiektuek lehiakortasuna hobetzen baitute. Ildo horretan, erakundeak plan integrala jarri du abian, Mondragon Ekiten izeneko, Unibertsitatean ekintzailetzaren eta berrikuntzaren kultura sustatzea helburu duena.